

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 2013rako Aurrekontu Legearen aurreproiektua aurkeztu du Kontseilu Ekonomiko eta Sozialaren aurrean

Goicoechea lehendakariordeak azpimarratu du oinarrizko zerbitzu publikoak bermatzen direla eta susperraldi ekonomikoaren eta gastu gutxiagoko administrazioaren aldeko apustua egiten dela

Lunes, 29 de octubre de 2012

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legearen aurreproiektua aurkeztu du gaur goizean Ekonomia eta Gizarte



Atzean, San Miguel, Goicoechea, Franco eta Valdemoro, EGKaren bileran.

Kontseiluaren (EGK) bilkuran. Proposamenak 3.597,69 milioi euroko gastua aurreikusten du guztira, eta kopuru horretatik 3.384,49 euro finantzakoa ez den gastuari dagokio, hau da, departamentu ezberdinek gauza dezaketen gastuari. Azken zifra hori % 8,8ko jaitsiera da 2012rako ezarritako gastu-gailurrari dagokionez.

Goicoechea lehendakariordeak EGKaren aurrean defendatu du Aurrekontuen aurreproiektu horrek "oinarrizko zerbitzu publikoak bermatzen dituela, susperraldi ekonomikoaren eta enpleguaren sorreraren aldeko apustua egiten duela eta Administrazioaren gastuaren murrizketa proiektatzen duela haren egituraren berrantolaketarekin". Zehazki, legearen aurreproiektuak dagoen gastuaren % 50 gizarteko zerbitzu publikoei eusteko bideratzen du (Osasun, Hezkuntza eta Gizarte Politiken departamentuak) eta % 40 susperraldi ekonomikoaren alde egiten duten neurrietarako (Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu departamentuaren bidez; Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio departamentuaren bidez eta Sustapenekoaren bidez). EGKak ere 2013 rako Neurri Fiskalen eta Zerga Neurrien Foru Legearen aurreproiektua aztertu du, susperraldi ekonomikoaren bidez Foru Ogasunaren diru-sarrerak handitu nahi dituenak. Berrikuntza nagusiek ohiko etxebizitzagatik edo alokairuagatik dagoen kenkariaren jarraipenarekin zerikusia dute; ekintzailatza sustatzeko neurriekin; eta Sozietatearen gaineko Zergaren araudi berriarekin. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu departamentuak baloratu duenez, aldaketa horiek abian jartzeak diru-bilketa 64,5 milioi euroan handitzea ekar dezake. Lourdes Goicoecheak adierazi du, gainera, "une honek eskatzen dituen aurrekontuak direla" eta "ahalik eta adostasun handiena lortu nahi dela".

EGKaren balorazioaren ostean, araudiaren arabera nahitaezkoa, Nafarroako Gobernuak bi dokumentuak onartuko ditu eta Foru Parlamentura bidaliko han izapidetu eta onar ditzaten datorren abenduan, 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu aurretik.

EGKa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren mende dagoen kontsultako organoa da. Organo horren zeregin nagusia da, arlo sozio-ekonomikoak eta bereziki Nafarroako Aurrekontu Orokorraren aurreproiektua arautzen duten foru-legearen aurreproiektuei buruzko txosten nahiz erabakiak ematea; eta baita Nafarroako Gobernuak edo Parlamentuak eskatuta edo norberaren ekimenez arlo ekonomiko, fiskal, lan-arlo, enplegu eta gizarte-ongizateko arloetako edozein gairi buruzkoak ere.

EGKa osatzen dute Foru Komunitateko Administrazioako ordezkariak; Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federaziokoak; UGT, Comisiones Obreras, ELA eta LAB sindikatuko ordezkariak; Nafarroako Enpresarioen Konfederaziokoak (CEN), Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Batasunekoak; Nafarroako Nekazari eta Abeltzain Batasuenko ordezkariak; Nafarroako EHNE nekazaritza-sindikatuak; Nafarroako Lan Enpresen Erakundekoak; Gurelur erakunde ekologistakoak; Nafarroako Unibertsitate Publikoko ordezkariak eta Irache Kontsumitzaile Elkarteak ordezkariak.

EGKaren bilkura horren buru zen Goicoechea lehendakariordearekin batera, honako hauek izan dira: Aurrekontuen zuzendari nagusi Juan Franco; Politika Ekonomikoko zuzendari nagusi Maria Jesus Valdemoro; Lan eta Arriskuen Prebentzioko zuzendari nagusi Imelda Lorea, Enpresa eta Berrikuntzako zuzendari nagusi Jorge San Miguel; Gizarte Politika eta Kontsumoko zuzendari nagusi Mariano Oto, bai eta Nafarroako Zerqa Ogasuneko zuzendari gerente Idoia Nieves ere.